

Indusmedia industria-enpresentzako Marketin Digitaleko II. jardunaldia egin zen Donostiako Basque Culinary Centerren

2012/11/05

Industria-enpresentzako Marketin Digitaleko Indusmedia jardunaldiaren bigarren edizioa Donostian egin zen, urriaren 23an, Mondragon Unibertsitateko Basque Culinary Center egoitzan.

Mondragon Unibertsitateak, beste batzuen laguntzarekin, foro bat sortzeko beharra ikusi zuen, Sareak industria-enpresen sektorean ekar ditzakeen onurak ezagutarazteko. Izan ere, gisa honetako enpresa askok ez dituzte kontuan hartzen Internet bidez negozioa egin ahal izateko plataforma bat erabiltzeak zabal ditzakeen aukerak. Overaliak egindako ikerketaren emaitzek erakutsi dutenez, euren on-line bidezko plataforma komertziala garatu duten enpresek fakturazioak egiteko ere plataforma bera erabiltzen dute.



IndusMedia